



Hiri-basoa berreskuratzen

Olapoto-Aldakiño basoan zenbait lan egiten ari dira, erabilera arintzeko



Natur Eskola ondoan urmaela eta *picnic* gunea egokituko da.

Olapoto-Aldakiño hiri-basoa berreskuratzeko lanak abian

Basoaren balio naturalak murriztu barik, herritarren erabilera erraztea eta areagotzea helburu duten hainbat esku-hartze egingo dira bertan

Goiko argazkiak erakusten duen moduan, hasita daude Olapoto-Mojasoro-Aldakiño hiri-basoa berreskuratzeko lanak. Helburu bikoitza du bertan egingo den esku-hartzeak: alde batetik, gune natural honetaz gozatzeko aukerak areagotzea herritarrentzat, eta, besteik, basoak dituen balio naturalak zaintzea eta, ahal den neurrian, indartzea.

Olakua, Ugarkalde eta San Martin auzuneen artean dagoen baso eremu honetan ez da mantenu lan handirik egin urte askotan, eta horrek baso azpiko landaredi oparoaren garapena baimendu du. Ondorioz, basoak itxura narrasa du zenbait gunetan, baina, bestalde, bioaniztasun oso aberatsa gordetzen du bere baitan. Herriko talde ekologistak egin izan dituzten ikerketa eta inbentarioek erakusten duten moduan, bertako zuhaitz, landare eta sastraken artean askotariko animalia eta landareek aurkitzen dute babeseta eta gorde-lekua. Horregatik, egungo baso-egituraren esku-hartze puntualak baino ez egitea erabaki da.

ESKU-HARTZE NAGUSIAK

Iñigo Segurola eta Jon Muñiz paisajistek (*LUR Paisajistak*) idatzitako proiektua eta herriko zenbait eragilek egindako ekarpenak hartu dira kontuan Olapoto-Aldakiño basoan egingo diren lanak zehazteko, aipatutako helburuak lortze aldera.

Laburbilduta, hauek dira bertan egingo diren esku-hartze

nagusiak: bide-sarea egokituko eta antolatuko da, sarrera berria egokituko da Olakuako zubitik, egonleku berriak egokituko dira natur eskolaren aldamenen eta anfibioentzako putzuaren ondoan, eta baso egiturari dagokionez, erortzeko arriskua duten zuhaitz batzuk moztu eta bestelako kimaketa, landaketa eta sasi-garbiketa lanak egingo dira. Moztutako zuhaitzen egurra bertan aprobetxatuko da, besteak beste, ibilbideetako zorua sendotu eta egonkortzeko, zenbait gunetan.

Ondoko orrian irudi bidez azaltzen dira Olapoto-Aldakiño basoan egingo diren esku-hartze nagusiak. Udalak Ekopaisaia enpresari esleitu dizkio lanak 130.372 euroko (BEZ barne) aurrekontuarekin, eta ustekaberik ez bada, martxorako amaituko dituzte lanak.

Olapoto-Mojasoro-Aldakiño eremuak 49.007 m²-ko azalera du eta 1972an erosi zion Udalak Sotomayorreko dukeari, eskolak eta parke publiko bat egokitzeko helburuarekin. Hala, 1977an Aranzadi Zientzia Elkarteari enkargatu zion Udalak helburu didaktikoetarako eta aisialdirako erabiliko zen parke natural bat sortzeko proiektua, baina ez zuen aurrera egin. Gero, 1992an Natur Eskola zerbitzua jarri zuen martxan Udalak eta duela zortzi urte Olakua eta San Martin lotzen dituen Aldakiño bidea egokitu zuen. Egun Udala lantzen ari den Hiri Antolamendurako Plan berrian 'Baso periferiko' kalifikazioa ematen zaio gune honi, babes neurriak indartuz.



▲ BIDE-SAREA EGOKITU

Olapoto-Aldakiño basoko bide sarea egokitzeko lanak egingo dira. Egun erabilgarri ez dauden bideak garbitu, eta hormigonatu gabe dagoen bide-sare nagusia todo-uno geruza batekin zolatuko da. Gainera, malda handiko gunetan egurrezko trabes edo eskailera mailak egokituko dira, eta zenbait gunetan hodi pasagarriak jarriko dira, euri urak bideratu eta putzuak saihesteko. Olakuako zubitik basorako sarbide berria egokituko da.



▲ NATUR ESKOLAKO URMAELA

Natur eskolako eraikinaren aldamenean ur putzua edo urmaela egokituko da. Estetikoki laguntzeaz gain, hezeguneei lotutako ekosistemak garatzeko baldintzak eskainiko ditu. Euri urak jasoko dira bertan, eta inpermeabilizatuta egongo da, uraren maila urte osoan mantentzeko. Urmaelaren ondoan piknik gunea egokituko da egurrezko mahai eta aulkiekin.



▲ ATSEDEN LEKUA

Olakuako zubiaren parean, goi aldean, anfibioentzako putzutik hurbil, borobil formako egonleku edo biltze leku bat egokituko da, egurrezko eserlekuekin. Bestalde, zenbait gunetan basoaren balioak indentifikatu eta interpretatzeko panelak ipiniko dira.

INGURUMEN JARDUNALDIAK



Klima aldaketa, trantsizio energetikoa eta desazkundera bezalako kontzeptuak aztergai, Natur Eskolak antolatutako Ingurumen Jardunaldietan

HITZALDIA OTSAILAK 14 (kultur etxean, 19:00)

'Geología, crisis de materiales y consecuencias en la sociedad industrial'

HIZLARIA: Antonio Aretxabala, geologoa eta ikertzailea



Geologian lizentziatua da Antonio Aretxabala Díez (Vigo, 1963). Egun Zaragozako unibertsitatean dabil lanean, irakasle-ikerlari gisa, eta aurretik Nafarroako Unibertsitatean ere jardun zuen, eta NASarentzat ere aritu zen aldi batez. Zientzia dibulгатzaile gisa nabarmendu da, eta etengabeko hazkunde ekonomikoaren mitoaren kontrako iritziak azaldu ohi ditu bere hitzaldi eta artikuluetan.

HITZALDIA OTSAILAK 17

'Ecofascismo'

HIZLARIA: Carlos Taibo, idazlea eta irakasle ohia



Carlos Taibo Arias (Madril, 1956) idazlea eta editorea da, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko zientzia politikoetako irakasle erretiratu. Globalizazioaren kontrako mugimenduaren eta desazkunderaren defendatzaile sutsua da, eta, bere ustez, klima aldaketak eta lehengaien jaitzierak faxismo modu berri batera garamatza, zeinak munduko baliabideak gutxiengo batentzat gordeko dituen.

HITZALDIA OTSAILAK 15 (kultur etxean, 19:00)

'Análisis crítico de la transición energética'

HIZLARIA: Alvaro Campos, ingenieritza termikoan doktorea



Ingenieritza termikoan doktore, EHUko ikerlari eta irakasle atxikia da Álvaro Campos Celador (Bilbo, 1984). Energia-eraginkortasunarekin, biltegitratze termikoarekin eta energia berriztagarriekin lotutako gaietara bideratu du bere ikerketa lana. Trantsizio energetiko justuaren, sistema deszentralizatuen eta energia-kooperatiben alorreko aktibismoarekin uztartzen du bere ikerketa-jarduera. Ekologistak Martxan taldeko kidea da, besteak beste.

taldeko kidea da, besteak beste.

HITZALDIA OTSAILAK 24 (kultur etxean, 19:00)

'Dendrokronologia: zuhaitzen bizitza ezkututik klima aldaketara'

HIZLARIAK: Julen Astigarraga eta Asier Herrero, ekologoak



Julen Astigarraga geografo eta ekologo oñatiarrak gidatutako ikerlari talde batek baso-ustiaketa modu ezberdinek klima aldaketaren aurrean duten erresilientzia maila aztertu dute, Artia mendiko pagadietako laginak hartuta, dendrokronologia teknikaren bidez. Pagoaren baso erabilera ezberdinek klima aldaketaren eragina zein neurritan moldatzen duten aztertu dute, besteak beste. Ondorioak aurkeztuko dituzte.

ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GENIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

ERAKUSKETA OTSAILAK 13 - MARTXOAK 5

'EXCRETA. Nazkagarria bezain interesgarria'

Izaki bizidunak behin jaiotzen dira. Denbora luzean hazten dira. Uzten badiete, ugaltu egiten dira. Eta hil egiten dira, nahi ez badute ere. Baina... etengabe irazten edo botatzen dituzte gorutzak.

A priori arbuioa eragiten duen gaia bada ere, irazteak ikuspegi ekologikoa, medikoa, soziala eta kulturala du, askotan aintzat hartzen ez duguna. Natura Zientzien Museo Nazionalak (MNCN-CSIC) egindako erakusketa honen bidez, irazteak naturan eta gizartean duen eginkizuna ezagutarazi nahi da.



Animalia koprofagoak edo gorozjaleak ikusi ahal izango dira, antzinako garaiez hitz egiten diguten gorotz fosilizatuak, lehiakideak pozoitzen dituzten landareak eta bai sekrezioak, perlak, erabateko harribitxiak dituzten moluskuak ere. Eta bai gorotzek kultura desberdinetan duten eginkizuna, eta komunontziaren eta komuneko paperaren bilakaera.

Otsailaren 13an (18:30) inauguratuko da erakusketa, eta martxoaren 5era arte egongo da ikusgai kultur etxean, egunero, 18:00-20:00.

DOKUMENTALA OTSAILAK 22

'GR 282 - Artzaintza Naturbidea'

Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Burgos eta Nafarroa zeharkatzen dituen ibilbidearen inguruko dokumentala (artzainen bizipenak, paisaiak...) aurkeztuko du Aitor Intxaurreagak egileak.



IRTEERA ARTASORA OTSAILAK 26

'Zer egin dezakegu basoak klima aldaketara egokitzeko? Oñatiko pagadien ikerketa kasua'

Artasoko pagadietan egin duten ikerketaren inguruko azalpenak Julen Astigarraga eta Asier Herrero ekologoen eskutik. MUko aparkalekuan (09:00) kotxetan joateko.

HITZALDI - IRTEERA MARTXOAK 4

'Sendabelarrek dakitena' eta 'Sendabelar baratzea' liburuen aurkezpena

Garbiñe Larrea egilearen eskutik. Natur Eskolan (10:00-12:00).



ZINE KLUBA

OTSAILAK 16

Lunana, un yak en la escuela

Zuz.: Pawo Choyning Dorji.



OTSAILAK 23

Fire of love

Zuz.: Sara Dosa.



ZUHAITZ FERIXIA MARTXOAK 4

Mintegi ezberdinetako zuhaitz, landara eta haizak erosteko aukera, Foruen plazan (09:00)

ZUHAITZ EGUNA MARTXOAK 5

Hitzordua, goizeko 10:00etan, Foruen plazan.

ZUHAITZ EGUNA, ALOÑAKO LAGUNEKIN:

Martxoaren 12an, Unaimendin, 12:00etan.



Gualbi

asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com

Oñatiko Nagusien Mahaia otsailean jarriko da martxan

Adineko pertsoneri eragiten dieten herri mailako gaiak aztertu eta ideia eta proposamenez hausnartzeko foroa izango da

65 urtetik gorako herritarren nahiak, asmoak, egarriak, beharrak, proposamenak... ezagutzeko helburuarekin **Nagusien Mahaia** eratu du Udalak, eta hil honetan bertan jarriko da martxan.

Herriko pertsona nagusiei hitza ematea eta beraien beharrak ezagutzeko gogoia dago ekimen berri honen atzean. "Adineko pertsoneri begira programa edo ekimenak antolatzerako orduan, harrera eta eragin handiagoa izatera begira, Udaletik pentsatu genuen interesgarria izan zitekeela foro iraunkor bat sortzea, lehen pertsonan behar eta aukerei buruz berba egiteko. Gainera, kontuan hartu behar da oñatiarren ia laurdena (%24) 65 urtetik gorakoa dela", adierazi du Susana Altunak, udaleko Ongizate batzordeko burua.

Hori horrela, Udalak aurre diagnostiko bat burutu zuen iazko uda partean, jakiteko ea herritarrek ere interesgarri jotzen ote zuten era honetako foro bat sortzea, eta prest egongo ote ziren bertan parte hartzeko. Horretarako, elkarriketak egin ziren 65 urtetik gorako 58 herritarrekin, eta askok interesgarri eta beharrezkotzat jo zuten.

Herritarren erantzuna ikusirik, Nagusien Mahaia sortzea erabaki du Udalak, foro iraunkor bezala, adineko pertsoneri eragiten dieten gaiak eta proiektuak lantzeko, proposamenak jasotzeko, eta Udalaren solaskide izateko.



Izaro Elorza alkatea, eta Nagusien Mahaia koordinatuko duen Ongizate Zerbitzuen batzordeko burua, Susana Altuna, eta teknikaria, Itxaro Leibar.

Oñatiko herritarren %24 65 urtetik gorakoak dira

Foro irekia izango da eta 65 urtetik gorako edozein herritarrek parte hartu ahal izango du bertan. "Foro horretan eragile ezberdinetatik datozen pertsonak eta norbanakoak egongo diren arren, herri-ikuspegiarekin jardutea oinarritzat izango da. Hau da, mahaian ordezkatura egongo diren elkarte, eragile edo norbanakoen intereseko gai eta proiektuez harago, herriko pertsona nagusi guztiei eragiten dieten interes orokorreko gaiak jorratzea", adierazi du Izaro Elorza alkateak.

► NAGUSIEN MAHAIAREN HELBURUAK

- Adineko pertsoneri eragiten dieten herri mailako egoerak aztertzea
- Elkargune eta topagune izatea
- Esperientziak eta jakintzak partekatzea
- Hausnarketa eta eztabaidarako gune izatea
- Komunikaziorako zubi izatea

► FORO IREKIA

- Oñatiko Nagusien Foroan 65 urtetik gorako edozein herritarrek parte hartu ahal izango du, izan elkarte edo eragile baten ordezkari moduan, edo izan norbanako moduan. Udaleko Ongizate Zerbitzuen departamentuak koordinatuko du Nagusien Mahaia.
- Hasiera batean hilean behin elkartuko da Euskaldun Berria gelan, baina dinamikak berak erakutsiko du zein maiztasunekin biltzea komeni den.
- Nagusien Mahaian parte hartu edo bere funtzionamenduari buruzko informazioa nahi duenak emailaz (ongizatea@onati.eus) edo telefonoz (943 03 77 00) eska dezake.



Erdigunetik 2km-tara, kalitate goreneko 6 logela (banakoak edo bikoitzak),
2 suit hidromasaje eta sukaldearekin eta logela laukoitz bat.
Produktu naturalekin prestaturiko afari eta gosari osasungarriak.



Garagaltza, 21 · 20560 Oñati · Gipuzkoa · T.943 783657 / 646 023570
info@casaruralarregi.es ■ www.casaruralarregi.es



Zubiaren ezker aldean egokitu dute altxatutako

Segurtasuna hobetzeko lanak Torreazoko zubian

Galtzada baino altuago dagoen kolore gorriko espaloia egokitu dute oinezko eta txirrindularientzat

Torreazoko zubi estuan, motordun ibilgailuek, oinezkoek eta txirrindulariek bat egiten duten gunean sortu ohi diren arazoak arindu eta segurtasuna hobetzeko lanak egiten ari da Udala.

Hasierako asmoa pasarela berri bat eraikitzea zen, zubiarekiko paralelo, bertatik oinezkoak eta txirrindulariak bideratzeko, eta udal aurrekontuetan 250 mila euroko diru-partida bat zegoen azpiegitura berri hori eraikitzeko. Baina aukera ezberdinak aztertu ostean, legedia betetzeko pasarela izan beharko litzatekeen altuera eta dimentsioa kontuan hartuz, aukera hori baztertua erabaki du Udalak, oraingoz, Torreazoko zubi historikoaren on-



Zubiarekiko paralelo, pasarela berri bat egiteko aukera aztertu du Udalak, baina baztertu egin du inpaktua handiagia litzatekeela irizita

doan izango lukeen inpaktua handiegia litzatekeela irizita.

ALTXATUTAKO ESPALOIA

Beraz, irtenbide orekatuago baten (bide-segurtasunaren aldetik, eta baita ekonomikoki ere) aldeko hautua egin du Udalak, eta goiko

argazkian ikusten den moduan, 1,75 metroko zabalera duen espaloia bat egokitu dute Torreazoko zubian bertan, oinezkoentzat eta txirrindularientzat, Goribar aldetik datorren bidegorriari jarraitzea emanez. Horrek, etorkizunean Usakoraino egokitu

asmo den oinezkoentzako bidearekin lotzeko aukera emango du.

Espaloia berria motordun ibilgailuentzako galtzada baino gorago dago eta gorri kolorekoa da, errepidetik ondo bereizteko. Madalena aldera jarraitzeko asmoa dutenentzat zebra-bidea egokituko da zubiaren beste aldean. Motordun ibilgailuentzako galtzadak 4,20 metroko zabalera du, gaur egun bezala.

Udalak uste du esku-hartze honekin segurtasunean irabaziko dutela zubian bat egiten duten erabiltzaile guztiek, eta, bestela, beti egongo da denbora pasarela berria eraiki edo alternatiba berriak aztertzeke.

Echaide eraikuntza enpresa ari da lanak egiten, 36.076€-ko (BEZ barne) aurrekontuarekin, eta laster amaituko dituzte.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

Etxeko zaintza partikularren sektorean lan egiten duten pertsonen zuzendutako ikastaroa emango da Oñatin, dohainik



Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, Adinberriekin lankidetzan eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, MENTSAD prestakuntza programa jarriko da martxan Oñatin. Etxeko zaintza partikularren sektorean lan egiten duten pertsonen zuzendutako dago, eta Pertsonentzako Arreta Soziosanitarioko profesionaltasun ziurtagiria lortzeko aukera emango du.

Ikastaroa otsailean hasiko da (data zehazteke) eta 23 larunbatetan (15:00-19:00) burutuko da, Zubillagako Olaburu zentroan. Grupo SSI-k (Gizarte Zerbitzu Integratuen Taldea) emango gu ikastaroa. Dohainik da. Informazioa eta izen-ematea: 688 825 452 (Blanca Arce / Ana Fernández).

Aparkaleku disuasorio bat egokituko du Udalak

Aurtengo aurrekontuetan jasotako 14.000 €-ko partida erabiliz, herrigunetik gertu egongo den aparkaleku disuasorio baten proiektua lantzen hasiko da Udala. Herrigunera egun osoan datozen herriko zein kanpokoei, egun osoan ibilgailua uzteko aukera emango dien aparkalekuaren kokalekua zehazteko proiektua garatzen hasiko da, Hiri Antolamendurako Planak ematen dituen aukerak aintzat hartuz.

Goribarko biribilgunea egiteko lanak lizitaziora

Gipuzkoako diputatuen kontseiluak 2021eko azaroaren 20ean onartu zuen GI-2630 errepideko 18,250 KP-an Goribarko biribilgunea izango dena eraikitzeke proiektua, eta orain lanak lizitaziora atera ditu, 571.914 euroko (BEZ barne) aurrekontuarekin. Urtarrilaren 13an bete zen proposamenak aurkezteko epea, eta, ustekaberik ez bada, martxo hasieran has litezke lanak.



Proiektuan 4 hilabeteko epea aurreikusten da lanak burutzeko

Semaforo bidez erregulatuko dira Errekaldeko 29-31-33 zenbakien atzealdeko aparkaleku berriak

Udalak 10 aparkaleku berri egokituko ditu Errekaldeko 29, 31 eta 33 zenbakidun eraikinen atzealdean, goiko irudiak erakusten duen moduan, eta aparkaleku horiek sistema adimendu bati lotuta egongo dira. Modu horretan, aparkalekuak libre edo okupatuta dauden detektatzen duten sensoreei esker, eraikinen kanpoaldean ipiniko den semaforo batekin adieraziko da aparkalekurik libre dagoen ala ez. Modu horretan, aparkaleku bila sartzeko alferrikako itzulia ematea saihestuko da, eta aparkatzera doazen autoek soilik zeharkatuko dute espaloia, oinezkoen ibilia seguruago eginez. Aparkalekuak egokitzeke lanek 85.000 euroko aurrekontua dute lanek, eta hurrengo egunetan hasiko dira lanak.



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA
943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP
OINATI@COINBROKER.EUS



Herriko jolas guneen diagnostikoa aurkeztu du Oñatiko Udalak

Jolas guneak hobetu, egokitu eta sortzeko egingo diren esku-hartzeetarako bide orria izango da



Izaro Elorza alkatea eta Haurrak eta Gazteria batzordeko burua eta teknikaria diagnostikoa aurkezten

Datozen urteetarako bide orria sortu guran, herriko jolas guneen diagnostikoa egiteari ekin zion Oñatiko Udalak 2022ko apirilean, eta, hilabeteotan jasotakoaren aurkezpena eginda, bukatutzat eman du prozesua. Orain, hartan landuriko ekintza planarekin hastea dagokio: 100.000 euroko partida sortu zuen Udal Gobernuak 2023ko aurrekontuetan; eta, horrez gain, 2022an eginiko Partaidetzazko Aurrekontuetan, bozkatuenen artean izan zen 8-14 urte bitartekoentzat parke erakargarriak egiteko proposamena —200.000 euroko aurrekontua du—. “Herriko jolas guneentzako plan bat egiteko konpromisoz ekin genion legealdiari. Garrantzitsua da jolaserako joera berriak, horiek asetzeko dauden bitartekoak, herrian dauden aukerak... aztertzea. Orain, diagnostikoa eginda, marraztua dago etorkizuneko bide orria”, azaldu du Izaro Elorza Arregi Oñatiko alkateak.

Bada, partaidetzak esangura handia izan du herriko jolas gu-

neen diagnostikoa. “Hori hasieratik genuen argi. Haurren eta nerabeen parte hartzean sakondu beharra zuen prozesuak. Eta, era berean, funtsezko ziren hezitzaileen, gurasoen eta zaintzaileen ekarpenak. Haiei esker, osoagoa eta emankorragoa da bukaerako emaitza”, argitu du Iker Oñate Aiastrui Haurrak eta Gazteria batzordeburuak. Hain zuzen ere, elkarrizketek,

» **2023ko udal aurrekontuetan 100.000 euroko diru partida dago jolas guneen inguruko ekintza plana gauzatzeko hasteko**

marrakzi bidezko ekarpenek eta fotoboza izeneko metodoak ezaugarritu dute partaidetza prozesua. Eta, horietan, besteren artean, haurrek, nerabeek, hezitzaileek, gurasoek, zaintzaileek, zenbait alorretako udal teknikariek... hartu dute parte.

JOLAS GUNEEN NOLAKOTASUNA

Oro har, diagnostikoak erdi-gunean izan du jolas guneen nolakotasuna. Alegia, ez da azpiegitura edo elementu soilak proposatzera mugatu. Esaterako, aintzat hartu ditu jolaserako joerak, gizartearen gaurko eta etorkizuneko erronkak, landu eta hedatu beharreko balioak... Eta horietan guztietan, berdina izan da iparra: guztientzako (adina, sexua eta abar) jolas guneak eskaintzea, elkarlana eta talde lana bultzatzea, lekuen dinamizotasunean zein moldagarritasunean sakontzea, naturarekiko konexioa lantzea, zaintzaileen ongizatea aintzat hartzea eta haien arteko harremana sustatzea, mugikortasun iraunkorrarekin bat egitea, ludikotasuna, segurtasuna, jolasgarritasuna... ■

HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK

Askotarikoak dira diagnostikoak barnebiltzen dituen gaiak. Batetik, hobekuntzak proposatzen dira dagoeneko eginak dauden zenbait jolas guneetan —iturria jartzea, **irisgarriago** egitea...—. Eta hainbat lekuren jolaserako eskaintza egokitzeaz ere egiten da berba —**jolaserako elementu berriak** jarriz egin liteke hori—. Ostera, bada **jolas gune berriak** sortzeko proposamenik ere. Besteren artean, diagnostikoak antzeman du **0-2 eta 12-16 urte bitarteko**endako jolaserako eremuak falta direla herrian, eta horiei loturiko zenbait proposamen egin ditu. Horretan geratu barik, espazioak **berdinzaleago** bilakatzeko proposamenak ere egiten dira —hainbaten artean, jolaserako dauden elementuen zelakotasunak eragin ohi du horretan—.

“Aztertzen gabiltza horiek guztiak, herriko haur zein nerabeen beharrei behar moduko erantzuna emateko proposamenak lantzeko. Aurten bertan hasi gura dugu zenbait esku hartzerekin. Garrantzitsua da orain arteko lanari segida ematea. Herri hezitzailea da Oñati, eta ez da urratsik soberan bide horretan”, azaldu du Haurrak eta Gazteria batzordeburuak. ■

GIGAK PARTEKATUZ

AURREZTEKO TARIFA



FIBRA 300Mb

+ **MUGIKORRA 30GB**

+ **DEI MUGAGABEEKIN**

39,90€ /HILEAN

2º LINEA MUGIKORRA
GB PARTEKATUZ
+3 €/HILEAN

KONTRATATU HEMEN:

 **LIZKER**
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA

TLF: 943 090 600



BEZa bane. Daako instalazioa, 3 hilabetez egon behar duena. Gehitu linea gehigarriak hilean 3 €-tik aurrera eta aukeratu zure GB linea nagusiarekin eta gainerako linea mugikor gehigarriekin partekatu nahi duzun. Gehenez ere 3 euroko lerro gehigarri bat eta kontratu bakoitzeko beste hiru lerro gehigarri. Kontsaltatu gainerako baldintzak salmenta-puntuari.

MÁSMÓVIL

AHORRA, SIN MÁS

Auzokonpost guneetan sortutako konposta herritarren eskura jarriko du Udalak

» Konpostatze prozesuan desegiten ez diren hezur eta oskolak bereizteko galbahea erosi du Udalak

Ondoko argazkian ikusten den moduan, galbahe automatikoa erosi du Udalak, konpostatze prozesuan desegiten zailak diren hezur, oskol eta plastiko zati txikiak bereizi, eta, hala, auzo-konpost guneetan herritarrek sortzen duten konpostari bukaera egokia emateko asmoz.

Orain, bahetutako konposta hori auzo-konpostean parte hartzen duten herritarren eskura jarri du Udalak, ongarrri gisa erabiltzeko. Hala ere, aurrerantzean, aukera hori herritar orori zabalduko zaio.



TXANDA HARTUTA

Bahetutako konposta Urrutxun, garbigunera bidean, egokitutako gunean dago eta interesa duten herritarrek astean zehar eskuratu ahal izango dute, alde zuzenetik 954780411 telefonora deitu eta txanda hartuta. Konposta 600 litroko zakutan dago gordeta eta, hortaz, herritarrek eraman beharko dute poltsa edo kaxaren bat, konposta garraiatzeko.

Udalak eskerrak eman nahi dizkie hondakin organikoa beste modu batera kudeatzeko konpromisoa hartzen duten herritarrei.

▲ Bahetutako konposta kanposantuaren atzealdean dago gordeta, eta astean zehar (8:00-14:00) eskuratu ahal da aurrez txanda hartuta 943780411 (jaione) telefonora deituta

Auzobideen eta egur kargalekuen erabilera arautuko duen ordenantza jendaurrean

Udalbatzak 2022ko azaroaren 24ko bilkuran onartu zuen auzobideen eta egurra kargatzeko leku publikoen erabilera, kontserbazioa eta zaintza arautzeko udal ordenantza, hasiera bateko izaeraz. Orain, ordenantza hori jendaurrean egongo da 30 eguneko epean (urtarrilaren 30etik aurrera), berau aztertu eta bidezko gerta daitezkeen erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Udalaren webgunean edo udal bulegoetan kontsulta daiteke ordenantza. Auzobide eta egur kargalekuen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak, Udalak egingo duen kontrola eta arau-hausteei dagozkien zigorrak jasotzen dira, besteak beste.

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop



Emakumeen Etxeak eskainiko dituen aukerak aztergai

Goiko argazkian ikusten den moduan, 50etik gora emakume bildu ziren *Emakumion Etxia Eraikitzen* parte-hartze prozesuaren baitan urtarilaren 21ean Eltzian egin zen saioan. Azaroan zehar Azpeitia, Zumaia, Hernani eta Donostiako emakumeen etxetara egindako bisitetan jasotako informazioa partekatu zuten. Emakumeen etxeen gaineko kokapen orokorra egin eta aukera guztiak mahai gainean jarrita, otsailetik aurrera hurrengo fase bati ekingo zaio. Gaikako saio ezberdinen bitartez, aukera horiek Oñatira ekarri eta erabakiak hartzeko garaia izango da.

ERAIKINA ERABERRITZEKO LANAK LIZITAZIORA

Oñatiko Emakumeen Etxea izango den Kale Zaharreko 13 zenbakidun eraikina eraberritzeko lanak lizitaziora atera ditu Udalak. Bi fasetan egingo dira lanak, Itziar Zelaia arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera. Orain esleituko den lehen fasean, eraikinaren egituraren era fatxadaren egonkortasuna bermatzeko lanak egingo dira, eta teiltatua ere berrituko da. Lanak burutzeko 12 hilabeteko epea eta 828.403 euroko aurrekontua finkatu da lizitazio deialdian.



JABETZE ESKOLAKO BOST IKASTAROTAN LUZATU EGIN DA IZEN-EMATEA

Emakumeentzako Jabetze Eskolaren baitan antolatu diren ikastaroetako bostetan plazak daude oraindik eta, beraz, luzatu egin da izen-ematea, hasi bitartean. Hauek dira ikastaro-tailerak: '*Menopausia eta plazera*', '*Indarkeria obstetrikoa, erditzea eta dolu perinatala*', '*Hilekoaren odola, autogestioz eta elkarrekin*', '*Begirada feminista bat gorputz ziklikoei eta ginekologiari*' eta '*Irakurle taldea. Arrazakeriaren aurkako genealogia feministak, pentsamendu feminista xicana*'. Beste hiru tailerretan ('Yoga emakumeentzat', 'Generoa, umorea eta emozioak' eta 'Gizonak feminismorantz') plaza guztiak bete dira.



Adinekoentzako eguneko arreta zerbitzua kontratatzeko deialdia egin du Udalak

Mendekotasun arriskuan edo mendekotasun arin egoeran dauden adinekoei zuzendutako zerbitzua izango da. Gaitasun kognitiboak, fisikoak zein emozionalak lantzea izango da helburua eta, aldi berean, sozializatzea eta bakardade egoerak saihestea. Pake-Lekun eta Lagun-Lekun (Eltzia) eskainiko da zerbitzua, baina bertan parte hartzeko ez da baldintza izango elkarte horietako bazkide izatea. Interesdunek otsailaren 6ra arteko epea dute proposamenak aurkezteko. Bi urteko iraupena izango du kontratuak, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin. Kontratuaren lehen bi urteetarako aurrekontua 39.376 eurokoa (BEZ barne) da.

Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako laguntza deialdia

Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako emango dituen dirulaguntzen deialdia egin du Udalak. Lau laguntza lerro izango ditu:

- **A lerroa:** Herrialde pobretuetan proiektu estrategikoak garatzeko (79.000€). Eskaera epea: GAOn argitaratu ondoren 30 egun.
- **B lerroa:** Herrialde pobretuetan ekimen puntualak burutzeko (30.000€). Eskaera epea, GAOn argitaratu ondoren 30 egun.
- **C lerroa:** Oñatin eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio jardueretarako (6.500€). Eskaera epea abuztuak 31.
- **D lerroa:** Larrialdiko laguntza eta ekintza humanitarioko proiektuetarako (18.000€). Eskaera epea, azaroak 1.

Oñatiko Emakumeen Kontseilua Otsailaren 16an eratuko da

Urtarrilaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Oñatiko Emakumeen Kontseiluaren eraketa eta funtzionamendua arautzeko ordenantza, eta alegaziorik aurkeztu ez denez, otsailaren 16an egingo da batzar eratzailea, udaletxean, 17:30etan. Herriko edozein emakumek parte hartu ahal izango du.



Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiausti Kortabarria
Irakaslea

www.4sgoiena.com

Arantzazuko Ama, 3 behea • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)
943 53 36 57 • 4sgoiena@gmail.com

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com



Maileguan uzteko laguntza-produktuen katalogoa handitu du Gurutze Gorriak

Javier Igartua,
Debagoieneko
Gurutze Gorriko
lehendakaria,
Oñatiko
Udalaren
laguntzari
esker erositako
laguntza-
produktuetako
batzuekin

Debagoieneko Gurutze Gorriak mailegu zerbitzurako laguntza-produktuen katalogoa handitu du, Oñatiko Udalaren dirulaguntza bati esker. Zehazki, 2 gurpil-aulki eta lau gurpileko balaztadun 3 taka-taka berri erosi ditu eta, horrenbestez, geriatría arloko 36 produktuz osatutako katalogoa dauka egun Gurutze Gorriak debagoieneko herritarren eskura jartzeko.

Era honetako produktuen beharra ustekabeen sortu ohi da eta, horregatik, herritar askok jotzen dute Gurutze Gorriaren mailegu zerbitzura. 2018an jarri zen martxan zerbitzu hau, eta orduz geroztik ehundik gora mailegu egin dira.

ALDI BATERAKO ETA DOAKOIA

Debagoieneko edozein herritarrek jo dezake Gurutze Gorrira produktu horietakoren bat maileguan eskatzeko. Mailegua guztiz doakoa da, eta baldintza bakarra da produktua ondo zaintzea eta premia amaitu bezain laster

» 36 produktuz osatutako katalogoa dauka Gurutze Gorriak Debagoieneko herritarren eskura

» Mailegu-eskaerak Debagoieneko Gurutze Gorrira deituta (943765576) edo idatziz (altodeba@cruzroja.es) egin daitezke

» Mailegu zerbitzua aldi baterako eta guztiz doakoa da

bueltatzea baldintza onetan.

Maileguen ohiko iraupena 3 hilabetekoa izaten da, baina luzatu egin daiteke, beharrezkoa izanez gero. Mailegu-eskaerak zuzenean Debagoieneko Gurutze Gorrira deituta (943 76 55 76) egin daitezke, edo altodeba@cruzroja.es helbide elektronikora idatzita.

36 PRODUKTUKO KATALOGOA

Guztira, 6 gurpil-aulki, 9 taka-taka, 18 makulu, 3 makila eta garabi geriatriko bat ditu Gurutze Gorriak maileguan uzteko. Ekipamendu edo produktu horietako gehienak, erabiltzeari utzi dioten pertsona partikularrek dohaintzan emandakoak dira eta egoera onean daude. Inguruko erakunde eta enpresek egindako dohaintzei esker erositakoak ere badaude.

Material-dohaintzaren bat egin nahi duten pertsonak ere Debagoieneko Gurutze Gorrira jo dezakete, telefonoz (943 76 55 76) edo e-postaz (altodeba@cruzroja.es).

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

garmendia tejas

OBRA BERRIA / EGURREZKO EGITURAK



Basozabal Industrialdea 5 - N-1, km. 417
20212, Olaberria (Gipuzkoa)
T. 943 161 032
www.garmendiatejas.com

ERABERRITZEAK



BASERRIEN BIRGAITZEAK



BIRGAITZEAK



ERA GUZTIETAKO ESKU HARTZEAK



Exekuzio azkartasuna	Zerbitzu personalizatua	Zerbitzu teknikoa	150 obra urtean	25 urtez lanean
				



GAIA: itsaspeko bizitza

Gizartean eragiteko diseinua

EHUko Arte Ederren fakultateak 'Erakusteko kamisetak' izeneko erakusketa antolatu du, Garapen Jasangarrirako Helburuekin duten konpromisoa berretsi eta gizartea kontzientziatzeko asmoz

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Arte Ederren Fakultateak ekimen berezi bat jarri du abian, diseinu grafikoaren arloan garatutako irakaskuntza-berrikuntzako proiektu batean oinarrituta. Diseinu grafikoak duen funtzio komunikatiboaz baliatuz, Nazio Batuek onartutako Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotutako irudiak sortu dituzte, EHUk helburu horiekiko duen konpromisoa gizartearen aurrean ikusarazteko, indartzeko eta bultzatzeko.

Irudiak sortzeaz gain, erakusketa bat ere prestatu dute Arte Ederretako Fakultateko irakasle diren Leire Fernandez oñatiarrak eta Eduardo Herrerak. Kontutan hartuta diseinu grafikoa tresna aparta dela ideiak eta balioak ikusarazteko, eta, bestalde, ikusirik gaurko gizartean, batez ere gazteen artean, kamisetak euskarri paregabea direla aldarrikapenak egiteko, ikasleek diseinatutako irudietako batzuk kamisetetan inprimatu eta



'Erakusteko kamisetak' (*Camisetas que enseñan*) izenburua duen erakusketa ibiltaria antolatu dute, 108 irudirekin, helburu bakoitzeko sei, ondoko orrian ikus daitekeen moduan.

Munduko hainbat tokitan ematen den haurren hilkortasun tasa handia, emakumeen genitalen mutilazioa, diamante-meategietan ematen den esklabotza, hezkuntzaren beharra pobreziaz irteteko, eta berotze globala bezalako gaiak salatzen dituzten irudiak dira, eta gizartean eragin nahi dute, irudiek sorrarazten dituzten emozio eta sentimenduen bidez, garapen sozial eta ekonomiko jasangarriago baten alde. Gatazka- eta bidegabekeria-egoeren aurreko sentsibilizazioa, eta gizartea eraldatzeko kontzientziarioa indartzea da xedea.

Oraingoz, Getxo, Barakaldon eta Bilbon ikusi ahal izan dute erakusketa. Otsailaren 2tik martxoaren 2ra Donostiako Txillardegia Aretoan egongo da, martxoan Gasteizen, apirilean Leioan eta uztailean Bilbon.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net f i



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

ERAKU
KAMIS

Universidad
del País Vasco

STEKO SETAK

Euskal Herriko
Unibertsitatea



GAIA: genero berdintasuna



GAIA:
pobreziaren amaiera

«Diseinu grafikoaren funtzio komunikatiboaz baliatu nahi izan dugu, aldarrikapenak egin eta gizarte kontzientzia sortzeko»



GAIA:
desberdintasunak murriztea



GAIA:
osasuna eta ongizatea



LEIRE FERNANDEZ IÑURRITEGI
EHUko Arte Ederretako irakaslea



GAIA:
goserik ez

IRUDI AKTIBISTAK

Taula honen goikaldean ikus daitezke Nazio Batuek onartutako Garapen Jasangarrirako Helburu ezberdinetarako EHUko ikasleek diseinatu dituzten irudi batzuk.

Erakusketaz gain, ekimenaren helburuen eta irudien sormen prozesuaren inguruko informazioa ematen duten bi liburu ere ateratu dituzte, bata formatu digitalean ('**Iraunkortasunerako irudi aktibistak**') eta bestea paperean ('**Helburudun diseinua**'). Gainera, EHU/UPV-ren 2023ko egutegian ere proiektu honetako irudiak erabili dituzte.



Liburu digitala ikusi nahi izatera, eskaneatu azpiko QR kodea.



HOTZ-OÑATI

urtebeteko jarduna zenbakitan

Hotz-Oñati elkarteak 2016an sortu zen eta bere helburua errefuxiatuen giza eskubideen alde lan egitea da. Nola?

- Laguntza ekonomikoa bidalita.
- Bilketak eta material humanitarioa bidalita.
- Sentsibilizazioa eta salaketa eginez.

Laguntza ekonomikoa bidali

Hotz-Oñatik 2022. urtean 58.822,25€ bideratu ditu lagundu dituen **16 elkarte edo kolektiboren** proiektuetara, **10 zonalde edo herrialdetan** (Yemen, Mediterraneo itsasoa, Grezia, Ceuta, Serbia-Bosnia-Kroazia muga, Ukraina eta bere mugak, Andaluzia, Uganda, Sahara eta Irun).


Ondoko taulan zehazten dira hartzaileak eta erabilitako kopurua.

Bilketak eta material humanitarioa bidali

Hainbat bilketa eta bidalketa egin dira:

- Janari bilketa Greziara bidaltzeko (Zaporeak eta En Red Sos): 6.500 kg, 10 palet janari eta 1.245€ bildu ziren.
- Aita Mari erreskate-ontzirako materialak: 2022an galtzontzillo eta barra energetikoak bidali dira Aita Mari-ra. Barra energetikoak Natra enpresak eman ditu.
- Arropa bidaltzea (Tarifeños Solidarios): bost arropa-kaxa bidali ziren.
- Xaboiak bidaltzea (No Name Kitchen): Ulma

Lagundutako elkarte edo kolektiboa	Kopurua
Solidarios sin fronteras (Yemen): Gosariak proiektua	15.550,00 €
Salvamento Marítimo Humanitario (SMH): Aita Mari erreskate itsasontzia	8.772,25 €
En Red SOS Refugiados (Grezia)	8.500,00 €
Zaporeak (Grezia)	6.500,00 €
No name kitchen (Bosnia, Ceuta...)	3.500,00 €
Tarifeños solidarios (Andaluzia, zati bat Ukrainara bideratuta)	3.000,00 €
Galdakaoko Boluntarioen Gizarte Elkarte (GBGE) (Ukraina)	2.500,00 €
Kairos (Grezia)	2.000,00 €
Uganda (Richard Aita)	1.500,00 €
Accion directa sierra norte (Ukraina)	1.000,00 €
Solidary Wheels (Melilla)	1.000,00 €
EREI elkartasun elkarte (Oñati)	1.000,00 €
Hermasoloña (Sahara)	1.000,00 €
Auzolana Ukraina – Euskal Herria (Ukraina)	1.000,00 €
Irungo harrera sarea (Irun)	1.000,00 €
Por Causa fundazioa	500,00 €
Bolondresekin bidalitako laguntza zuzena	500,00 €
GUZTIRA	58.822,25 €



Grafikoan, elkarte edo kolektibo bakoitzera bideratutako ehunekoak ikus daitezke



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

Packaging-ek emandako xaboi-palet bat bidali zen.

- Xaboiak bidaltzea (En Red Sos Refugiados):

Otsailean, Ulma Packaging-ek emandako xaboi-palet bat bidali zen. Eta abenduan beste bidalketa bat egin da.

- Janaria, higiene-materiala eta jostailuak bidaltzea (En Red Sos Refugiados): Bildutako materialarekin bi palet bidali ziren.

- Barra energetikoak bidaltzea GBGEri, Ukrainara bidaltzeko: Martxoan Natrak dohaintzan emandako barra energetikoen 4 palet GBGE erakundera bidali ziren, beraiek Ukrainiako mugara bidaltzeko.

- Jostailuak bidaltzea (En Red Sos Refugiados): Ekainean bi kaxa jostailu bidali ziren En Red Sos Refugiados erakundera, Grezian errefuxiatuen artean banatzeko.

- Arropa bidaltzea (No Name Kitchen-tzat): Otsailean, No Name Kitchen erakundera (Ceutarako) sei arropa-kaxa bidali ziren.

Sentsibilizazioa eta denuntzia

Hainbat ekintza egin dira sentsibilizazioa helburu hartuta:

- Sentsibilizazio-kanpaina: "Izan gaitezen babesleku; Bide seguru eta legalak orain!". Sentsibilizazio kanpaina ezagutarazteko bideo bat grabatu eta zabaldu zen. Pankartak jarri ziren Oñatiko hainbat lekutan. Kanpainako ekitaldiak ondorengoak izan dira:

- Etorकिन erregularizazioari buruzko "Online Hitzaldia"
- Bigarren bidaia dokumentalaren emanaldia
- Aita Mari

dokumentalaren emanaldia eta tertulia
– Irungo Harrera Sarearen hitzaldia
– ASH laburmetraia eta tertulia zuzendariarekin

- "Migrar y resistir" liburuaren aurkezpena
- Oñatiko jaietan Hotzeko informazio puntua txosnagunean

- Mugen inguruko argazki erakusketa
- Sentsibilizazio-kanpaina "eskumuturreko horia": Mediterraneoko errefuxiatuen dramari buruz kontzientziatzeko



Sentsibilizazio mailan burututako ekintzetako bi

sentsibilizazio-kanpaina.

- Sinadura bilketa: Hotz Oñatik Estatu mailako #RegularizaciónYa mugimenduarekin bat egin eta sinadurak batuko ditu


2022an. Hotz Oñatik 1.000 sinadura baino gehiago bildu ditu Oñatin. Mila esker sinatu duzuen guztioi! ■

DIRU SARRERAK

Egindako lana ez zen posible izango erakunde, enpresa, talde eta herritarrengatik jasotzen ditugun laguntzak gabe.

2022an jasotako diru-sarrerak bi talde handitan bana daitezke: Oñatiko Udalak lankidetzat, larrialdi eta sentsibilizazio-proiektuetarako emandako diru-laguntzak eta jasotako dohaintzak. Dohaintzak honela banatzen dira: enpresen dohaintzak, azoka txiki eta zozketetako dohaintzak, kanpaina espezifikoetako dohaintzak, pintxopote eta ogitarteko postuetan lortutako diru sarrerak eta beste dohaintza batzuk. Guztira, **58.928,88 €** euroko diru-sarrerak izan dira.

Finantzazioa iturria		Kopurua
Oñatiko udala		21.655,00 €
Azoka, itsulapiko eta zozketetako dohaintzak		13.664,42 €
Kanpainetako dohaintzak (8.234,10 €)	Janari bilketa kanpaina	1.235,00 €
	Ukrainako kanpaina	4.515,00 €
	Eskumuturreko horiaren sentsibilizazio kanpaina	2.484,10 €
Enpresen dohaintzak (Dikar, Ulma fundazioa, Mondragon Assembly)		6.189,17 €
Beste dohaintza batzuk (Hainbat talde eta norbanakoen dohaintzak)		6.149,59 €
Pintxopote eta ogitartekoen postuak		3.036,60 €
GUZTIRA		58.928,88 €



Mila esker Oñati! Zuek gabe ez zen posible izango Hotz Oñatiren jarduerak! Hotz-Oñati elkarteak 2022 urteko jardueren memoria osoa hemen aurki dezakezue: <https://tinyurl.com/MemoriaHotzOnati2022>

Berrobiko herriaren omenaldia jaso du BITTOR MADINAK

» Eskola publikoa euskalduntzen eta herrigintzan egindako lana eskertu nahi izan diote



Bittor 26 urtez aritu zen irakasle Berrobiko eskolan (Argk.: Pedram Yazdani)

«Eskola nazionala ez zegoen ondo, barrutik aldatu behar genuen eta irakasle euskaldunon beharra zuen»

Iragan abenduaren 3an, Euskararen Egunarekin batera, bere Berrobixko maitearen omenaldia jaso zuen Bittor Madinak (Oñati, 1944). Bertako eskola publikoa euskalduntzen, euskararen aldeko hainbat ekimenean eta, oro har, herrigintzan egindako lana aitortu eta eskertu nahi izan zion Berrobiko herriak. "Ustekabe handia izan zen niretako", aitortu digu Bittorrek; "Euskararen Egunaren aitzakian, aulki batean esertzeko eskatu zidaten eta, egiari zor, ekitaldi polita prestatu zuten: aurrekua, bertsoak, kantak, opariak, argazki zaharrak, luntxa, ikasle eta lankide ohiak... Ederra izan zen plaza beteta ikustea".

OÑATITIK BERROBIRA

Oñatin, lau urte, eta Gasteizen, urte bat, irakasle aritu ostean, 1978an iritsi zen Bittor Berrobira, bertako eskolako gidaritzza bere gain hartzeko eginkizunarekin. "Irailaren 29a zen, ondo gogoan dut. Festak Oñatin. Berrobi non zegoen ere ez nekien, eta behin hara iritsita, irakaslerik gabeko eskola aurkitu nuen; ordura arte izan zuten Leongo andereñoa falta zen, eta neska-mutikoek ia hilabete zeramaten eskolarik gabe. Delegaritzatik ez zuten irakaslerik bidaltzen eta, azkenean, aurretik ezagutzen nuen irakasle euskaldun bati deitu eta urriaren 23an zabaldu genituen Berrobiko eskolako ateak, 90 ikasle eta 3 irakaslerekin".

Ilusio eta gogo handiz ekin zioten ibilbide berriari, *escuela nacional* bezala ezagutzen zen hura eraldatzeko asmoz, metodologia berriak aplikatu eta, poliki poliki, eskola publikoa euskalduntzeko erabaki irmoarekin.

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

OMENALDIA IRUDITAN



Argazkiak: <https://ataria.eus>



Goian, ezkerrean, A eta B ereduko ikasleek euskara ikasteko 1982/1983an sortu zituzten testu liburuetako bat. Erdian, Berrobiberri urtekariaren azken azala. Eskuman, Bittorrek euskaratu zuen Leon Tolstoiren *Alegiak* liburua

ESKOLA PUBLIKOIA EUSKALDUNDU

Pedagogia berritzaile eta aurrerakoietan erreferente ziren Rosa Sensat, Celestin Freinet eta Paolo Freire bezalako adituen ideiekin trebatu zen Bittor, beste hainbat irakaslerekin batera, eta, poliki poliki, grisa zen hezkuntza sisteman kolore pittin bat jartzen hasi ziren, ikasleak hezkuntza sistemaren erdigunean jartzen, irakasle-ikasleen arteko komunikazioa lantzen, aire libreko aktibitateak egiten, eta mundua euskaraz uler zitekeela erakusten. "Ikastoletan hasiak ziren metodologia hauek aplikatzen, baina Franco hil eta gero eskola publikoan ere oso jende ona sartu zen, eta gaurko errealitatea ikusi besterik ez dago, orduan hasi genuen lan hark balio izan duela jabetzeko".

Gabezia handiko garaiak ziren, euskarazko material didaktikoari dagokionez, bereziki, eta, hala *Aise* izeneko liburu sorta atera zuten. "Euskara modu erakargarrian ikasten laguntzen zuten liburuak ziren. Eskola guztietara zabaldu genituen eta bere funtzioa bete zuten, poliki poliki, D ereduaren ezarpen prozesuan".

Iritzi artikulua ere idatzi zituen Bittorrek garai hartako egunkari eta aldizkarietan, eskola publikoan egiten ari ziren lana balioan jarri eta hezkuntza eredu euskaldun, doako eta laikoaren alde herritarrak kontzientziatu nahian.

Irakaskuntzan ez ezik, herri-gintzan eta, bereziki, kultura eta euskararen inguruko ekimenetan ere buru belarri jardun izan du Bittorrek, protagonismorik gabe, isileko inurri lana eginez. Hala, Tolosaldeko *Hitza*-n kolaboratu izan du, eta *Berrobiberri* urtekariaren sortzaileetako bat ere izan zen. Berrobin ateratzen duten egutegirako testuak ere (poemak, kontakizuntxoak...) berak hautatzen ditu, irakurleengan go-goeta eragiteko asmoz, beti ere. Leon Tolstoiren *Alegiak* liburua ere euskaratu zuen 1985ean.

Irakur zale amorratua da Bittor, eta Ramon Olasagasti idazleak omenaldi ekitaldian aitortu zuen moduan, Bittorri esker ikasi zuen hizkuntza eta literatura maitatzen.

Pertsona maitatua da Bittor Berrobin. Erreferente garrantzitsua izan da arlo eta modu desberdinetan, eta halaxe aitortu nahi izan diote berrobitarrek. ■

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI





BEHEBARRUAren irekiera ekitaldia otsailaren 10ean egingo dute Elkar Hezi ikastetxean

► Aurkezpen hitzaldiaren ostean bisita eta luntxa egongo dira ► Herritar guztiak daude gonbidatuta

Elkar Hezi ikastetxean egokitu duten BEHEBARRUA espazio berriaren irekiera ekitaldi ofiziala egingo da otsailaren 10ean (17:30-19:00).

"**Behebarrua** hitzak badu bere esanahia: HAZTEA eta HEZTEA, behetik gora eta barrutik kanpora haziz eraikitzen da. Azken urteetan martxan jarri diren hainbat proiektu modu egokiagoan gauzatzeko gunea da hau, aniztasuna oinarri izango duten pertsonen arteko interakzioen bidez, ikasleen ibilbidea aberasteko eta gizarte eraldaketarako esperimantazio espazioa, zoriontasuna lortzeko oinarritzko lanabesak eskuratzeko uneak, guneak", adierazi dute ikastetxetik.

Duela urtebete hasi ziren eraberritze lanak egiten eta ikasturte honen hasieratik martxan daude espazio guztiak:

- **EREIN**, txikitatik, balioak, gaitasunak, talentuak... erretzeko, oinarri sendo bat, sare neuronal aberats bat eraikitzeko tokia.

- **EKIN**, gure ingurua eraldatzen hasteko lehen geltokia da, harreman osasuntsuagoetan oinarritutako gizarte justuagoa lortzeko eta hau guztia EBIDENTZIA ZIENTIFIKOETAN oinarritutako Jarduera Arrakastatsuen bitartez: talde elkarreragileak, liburutegi tutorizatuak, tertulia dialogikoak, batzorde mistoak...

Berez, eraldaketa hutsak ez dakar berekin ezinbestean onura, norabidea aukeratzea ezinbestekoa da. **IZAN**en, haur edo gazte bakoitzak, bere burua ezagutzeko eta izaten ikasteko uneak esperimantatzen ditu.

Elkar Hezi proiektua indartuko du **Behebarruak**, haur eta gazte BAKOITZARI aukerak eskainiz: ikaskuntza dialogikoaren bidez gaitasunak eta talentuak garatzeko, barnetik hazteko, askatasunez bizitzen ikasteko, biolentziarik gabeko bizikidetzan, finean, errespetuan eta berdintasunean oinarritutako jendarte sustatuko duten herritar libre izan daitezen.

GEROA BERMATUZ autonomoen jubilazioari eta negozioen transmisioari buruzko informazio jardunaldiak antolatu ditu Mankomunitateak

'Geroa bermatuz' jardunaldiak antolatu ditu Debagoieneko Mankomunitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Autonomoen erretiroaz eta negozio txikien transmisioaz aritzeko bi ordu eta erdiko bi saio egingo dira Oñatin, Arrasaten eta Bergaran. Oñatiko saioak **otsailaren 9an eta 16an** izango dira, Bidebarrieta kaleko Euskaldun Berria gelan (14:00-16:30). Negozio txikien jabeek, bost urteko epean erretiroa hartu edo beste arrazoien bat tarteko, jarduera uzteko asmoa dutenei zuzenduta daude, besteak beste. Saioak dohainik dira, baina aurrez izena eman behar da, 943 79 30 90 zenbakira deituta. Plaza mugatuak.

Gora egin zuen iaz turista kopuruak Oñatin, baina 2019ko zenbakietara iritsi barik

Udaleko Turismo sailak 2022 urteari buruzko datuak eman ditu jakitera eta, laburbilduz, esan liteke Udalak zuzenean kudeatzen dituen baliabideetan **23.818** bisitari zenbatu zirela iaz, 2021ean baino %33,85 gehiago, baina 2019ko kopurutik (40.713) urruti samar oraindik ere. **Arrikruz-Oñatiko koban** 14.843 bisitari izan ziren, **Txokolateixan** 3.738, eta Oñatiko **turismo bulegoan** 10.261 bisitari zenbatu ziren, eta %51k bisita gidatuetan parte hartu zuten. Gainera, talde-bisitek ere gora egin dute nabarmen, batez ere udazken partean, eta EUSTATEk eman dituen datuen arabera, Oñatiko 12 ostalaritza zerbitzuetan 47 pertsona ari ziren lanean, 2019an baino 2 establezimendu eta %26 langile gehiago, eta turistaren egonaldiak luzatu egin dira.

Biztanleak gehitzen jarraitzen du Oñatik

Udaleko errolda zerbitzuak emandako datuen arabera, urtarillaren 1eko datuz **11.575** lagun zeuden Oñatin erroldatuta, urtebete lehenago baino 60 gehiago. 2022an zehar **86** haur jaioberri erroldatu ziren Oñatin, eta bertan erroldatuta zeuden **145** pertsona hil. Beraz, hazkunde naturala negatiboa izan zen iaz Oñatin, baina, bestalde, **119** lagun etorri ziren kanpotik gurera bizitzera eta, horrenbestez, Oñatik biztanleria gehitu du 11.600eko langara hurbilduz.



230 astelehen eta gero kalean jarraituko dute egungo eta etorkizuneko eskubideen alde

Urtarrilaren 15ean bost urte bete ziren Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua mobilizatzen hasi zenetik, eta oraindik ere borrokan jarraitzeko arrazoi asko daudela adierazi zuten. Alde batetik, bost urte hauetan lortutakoa gogoratu eta ospatu zuten, hala nola: iraunkortasun faktorearen aplikazioa eragozteka, alarguntza pentsioak hobetzea, pentsioak KPlaren arabera eguneratzea eta aurtengo %8,5eko igoera...

Egindako borrokaz harro, kalera irteten jarraitzeko arrazoi asko daudela adierazi zuten. "Gazteak eta adinekoak, jarduneko langileak, pentsiodunak, gizonak eta emakumeak, eskakizun bere dugu, aberastasunaren bidezko banaketa, soldata eta pentsioen erosteko ahalmena berreskuratzea, eta zerbitzu publikoak hobetzea".

Joseba Sarrionandia eta Felix Zubia hurrengo hizlariak Oñatiko Esperientzia Gelaren baitan

Felix Zubia (Zarautz, 1974) medikuak minbiziari buruz berba egingo du. 'Minbizia. Zer da eta zer egin dezakegu tratatzeko?' da **otsailaren 15ean** Santa Ana aretoan (10:00) emango duen hitzaldiaren izenburua. Bestalde, **Otsailaren 22an** Joseba Sarrionandia (Iurreta, 1958) izango da hizlaria. 'Munduari bira eman zion ontzia' liburua eta lehenengo zirkunabigazioa abiapuntutzat hartuta, kolonialismoari eta globalizazioari buruzko gogoetak partekatuko ditu. Santa Ana aretoan, 10:00etan.



Gogoratu, Oñatiko Esperientziaren Gelaren baitan antolatzen diren ekitaldiak dohainik direla herritar guztientzat. Gainera, hitzaldia hasi baino ordu erdi lehenago kafea hartzeko aukera eskaintzen du Udalak Santa Anan bertan, aretora hurbiltzen diren herritarrek solaserako aukera izan dezaten. Gainerakoan, Goienagusi elkarteak Arrasaten edo Bergaran antolatzen dituen hitzaldi, tailer, mendi irteera edo bisita kulturaletan parte hartzeko Goienagusi elkarteko bazkide egin behar da. Udalak animatu egin nahi ditu herritarrak bazkide egitera gai interesgarriak jorratzen direlako eta pertsonak ezagutu eta lagun berriak egiteko aukera oso ona delako. Izen-ematea eta ekitaldiei buruzko informazioa: <https://goienagusi.eus>.

Arnaldo Otegi Oñatira etorriko da otsailaren 7an



Maddalen Iriarte, EH Bilduren diputatu nagusi gaia, Oñatin egon zen urtarrilaren 18an, EH Bilduren udal taldeak burututako eta esku arten dituen proiektu ezberdinak bertatik bertara ezagutzen: Onaro telekomunikazio operadorea, Energia Plana, Emakumeen Etxea, Natur Eskola berriak... Bestalde, datorren astean (otsailak 7) Arnaldo Otegi, EH Bilduko koordinatzaile nagusia, etorriko da Oñatira eta herritar guztientzat irekia izango den solasaldia eskainiko du kultur etxeko zine aretoan, 18:30etan.

Eltzia tabernak ordutegi berezia izango du, esleipen berria egin arte

Udalak Eltzia tabernaren inguruko bidegarritasun txostena eskatu du eta hori jaso ondoren jarriko du martxan lizitazio prozesu berria. Ziurrenera, martxoan egingo da deialdi berria, baina bien bitartean Eltzia tabernak zabalik jarraituko du ordutegi bereziarekin:

- **Astelehenak:** itxia
- **Astearteak:** 18:00-22:00
- **Asteazkenak:** 11:00-14:00 / 18:00-22:00 (Pintxo-potea: 19:00-21:00)
- **Ostegunak:** 18:00-22:00
- **Ostiralak:** 11:00-14:00 / 18:00-22:00
- **Larunbatak:** 11:00-15:00 (pintxoak eta errazioak egongo dira) / 18:00-22:00
- **Igandek:** 11:00-15:00 (pintxoak eta errazioak egongo dira) / 18:00-22:00


TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Irunberri (1990) dela-eta

Ander Lizarralde

Jose Antonio Ardantzak (lehendakaria zen) hasieran, ekainak 27an, Irunberriko gertaerei buruzko bertsio ofiziala zalantzan jarri zuen. Hori hala da. Baina gero, Ajuria Eneako Paktuarekin morrontzan, uztaillaren 4an, suizidioaren bertsioa defendatu zuen. Honela: *“Badirudi gertaerak argitu ahala, garbi dagoela Susana Arregi bere kideek erail zutela, eta bestea –Jon Lizarralde-, suizidatu egin zela”* (DEIA egunkaria).

Eta Uztaillaren 20an Xabier Arzallusek hartu zuen hitza (orduko PNVko burua), eta adierazi zuen: *“Konbentziturik nago Irunberriko Arroilako ETAkideak suizidatu egin zirela, eta oso larria da komando batek euren buruak entregatzea baino suizidatzea nahiago izatea, kamikazeei buruz hitz egin beharko genuke eta”*. Eta horri honako hau gehitu zion: *“Guardia Zibilak zergatik suizidatu behar du inor? Metrailadore baten tiro-sortarekin denak akabatu zitzaizkete!”* (Españiako Irtati Nazionala).

Txema Agirrek, Oñatiko PNVren Uri Buru Batzarraren izenean, urtarrileko Kontzejupetik-en, hau idatzi zuen: **“PNVk inoiz ez du ontzat eman Guardia Zibilak 1990eko ekainean Irunberri izandako gertaera ilunei buruz emandako bertsioa”**. Txemak onartu nahi ez badu ere, PNVk ontzat eman zuen suizidioaren bertsio ofiziala. Ajuria Eneko Paktu antiterroristarekin morrontzan!

Ahaztu gabe, Oñatin, hileta ostean, herritarrak nola jipoitu zituen bere polizia-ertzainek.

Eskerrik asko Oñati!

Leire Etxeberria, Hotz-Oñatiren izenean

Urte berri bat hasi dugu eta zuen laguntzari esker Hotz Oñatik errefuxiatuen alde lanean jarraitu ahalko du.

2022. urtean jaso ditugun diru-dohaintzak eskertu nahi ditugu:

-Oñatiko Udalak lankidetzat, larrialdi eta sentsibilizazio-proiektuetarako emandako diru-

laguntzak.

-Dikar, Ulma fundazioa, Orona eta Mondragon Assembly-k emandako diru-laguntzak.

-Oñatiko Mendi Martxak emandako diru-dohaintza Hotz Oñatiren laguntzaren truke.

-Gaztelekuan kontzertu batean barran eta sarreran egotearen truke lortutako dirua.

-Txantxiku ikastolak Aita Mari proiekturako bildutako dirua.

-Txantxiki familia elkarteak emandako dirua.

-Garay enpresako langileek emandako dirua.

-Aloña Mendiko Gimnasia Erritmikoak -dirua.

-Eskumuturreko horia sentsibilizatzeko kanpainen egindako ekarpenak.

-Elikagaien bilketa handian jasotako elikagai eta dirua.

-Ukrainako kanpainen Ukrainako errefuxiatuentzat jasotako dirua.

-Pintxopote solidarioan eta jaietako ogitarteko postuetan lortutako dirua.

-Gabon inguruan “Elkartasuna oparitu” kanpainen jasotako dirua.

-Hilabetero azoka-txikietan jasotzen dugun dirua: Eskerrik asko produktu eta zozketa-boletoak erosten dituzuenoi!

Espezietan egindako dohaintzak ere jaso ditugu:

-Ulma taldeko enpresek gabon-sariak eman dizkigute. Gabon-sarien produktuak zozketetan erabiltzen ditugu.

-Ulma Packaging enpresak xaboiak eman dizkigu, errefuxiatuei bidali dizkiegu.

-Natra enpresak txokolatinak eman dizkigu. Barra hauek Aita Mari itsasontzira eta Ukrainako errefuxiatuentzat bideratu dira.

-Urgain eskolak kamiseta eta jertseak eman dizkigu. Eta Onatz dantza taldeak kamisetak eta zapatilak. Arropa errefuxiatuentzako erabili da.

-Kirrinek bere erakusleioa erabiltzeko aukera eman digu.

Eskerrik asko guztioi! Zuek gabe ez zen posible izango Hotz Oñatiren lana!

**Mekanizazio zerbitzu integralak****Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es**



Felix Sanchezen argazkia saritua

Felix Sanchez argazkilari oñatiarrak sari berri bat eskuratu du. Oraingo honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol departamentuak ematen dituen 'Gipuzkoa Kirolak' sarien baitan, 'Emakumea kirolean' ataleko argazki onenarena. *Desolación* (Atsekabea) du izenburua saritutako argazkiak, eta Clara Viñarás korrikalaria agertzen da bertan, iragan abenduko Elgoibarko Juan Muguerza Nazioarteko Krosean helmuga igaro berritan, egindako esfortzuaren nekea aurpegian nabari duela.

Eli Galarza Zulueta

Jerardo Elortza

Gabon aurtxuan fan xakun Eli, larogeta hamaika urterekin. Bere belaunaldixan Oñatiko Galartzarren azkenengua zan. Gure herrixan mediku eta botikarixu ugari izan dittuan familixa zabal horren gorabeherak ondo goguan eukan. Horregatik eta beste arrazoi batzuegatik, sarritan jo geben harengana, bere buru-artxiboko informaziño aberatsaren billa. Argibide asko emun oskun Oñatiri buruzko hainbat sailletako lanak moldau ahal izateko. Betik eguen lagunketako gertu. Milla esker Eli!

Udal Euskaltegiko matrikula-zozketaren irabazlea



Udalak ikasleen matrikulazio-kostuak arindu eta euskaltegiaren matrikulazioa bultzatzeko, matrikula baten zozketa egin ohi du euskaltegian ikasturte osoko matrikula egin duten ikasleen artean.

2022-23ko sariduna **C1 mailako Monica Lareu Ferreiro** izan da. Argazkian sariduna bera eta Udal Euskaltegiko zuzendari Roberto Altuna saria ematen.

Oñatin bizi diren Bergararren bazkaria

Martxoaren 25ean bazkaria egingo dute Oñatin bizi diren bergarrek. Bazkalostean musika ere egongo da. Eguna behar bezala antolatzeko otsailaren 15a baino lehen izena eman behar da ES88 3035 0005 30 0050086072 (Laboral Kutxa) kontuan 30€ sartuta, losu lñarraren izenean.



Presoen aldeko zozketan saritua

Presoen alde Gabonetan antolatutako zozketan **0317** zenbakia izan zen saritua. Karmele Altubek zeukan txartel hori eta berak jaso zuen saria, gabon saski ederra, argazkian ikusten den moduan. Zorionak!

JUANJE MARGOAK
627 818 247

ARKITEKTURA
Baserrien eraberritzeak * Isolatzailerak fatxadetan * Igozailuak
tel: 677 31 20 57 * amaiigartua@gmail.com

OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

JAPAN WEEKEND

Neguko egun ilunak pizteko asmotan Gaztelekutik ideia berriein gatoz. 2021eko maiatzeko aleko atal honetan komentatu genuen bezala, denbora daramagu kultura japoniarretik sortutako produktuak kontsumitzen dituzten haur eta nerabe kopurua- ren gorakada nabaritzen. Batzuk gogoratuko dizue nola garai hartan, Oñatiko Gaztelekuan honen inguruko jardunaldi edo asteburu bat antolatu eta honen inguruko gogoeta bat idatzi genuen. Hala ere, hezitzaile taldearentzat mugimendu ezezaguna izanik eta inguruan erreferentzia gehiegirik ez izateaz gain Covid-19ak eragindako egoeraren murrizketan markoan kokatuta geunden, eta momentuan ideia hartatik urruti samar geundela iruditu zitzaigun.

Hala ere, hartatik ideia forma hartzen joan da eta Otsailaren 25ean Barakaldoko BEC-en ospatuko den Japan Weekend jaialdira joateko asmoa daukagu, LH 5-6 eta DBH1-2-3-4ko oñatiar eta inguruko herrietako beste gazte batzuekin batera.

Zer da bada Japan Weekend-a? Japoniar kulturatik eratorritako manga eta anime bezalako sormenak bilduko dituen topaketa bat da, urtero BEC-en egiten dena, eta arrakasta handia izaten duena. Berez mangak Japoniar sortutako marrazki bizidunak dira, eta mangaren munduarekiko zaletasuna dutenek, normalean japoniar kulturatik datozen hainbat gai ezberdinekiko ere interesa izaten dute. Horrela, topaketa hauetan zaletasun horrek mugituta ehundaka haur, nerabe eta heldu batzen dira bi egunez, bertan gaiarekin loturiko nobedadeak, mozorro edota karaoke lehiaketak ikusteko eta bizitzeko asmoz. Gure aldetik, eta Udaleko Gazteria sailaren barnean sortu den adin-txikikoen aisialdirako inklusio programak bultzatuta, haur eta nerabeen gaitasunak garatzeko asmoarekin jarraitzen dugu, hauen motibazioetatik lanean jarraituz eta konfiantzazko harreman hezitzaile bat eraikiz. Japan Weekend-era egingo dugun irteera hau bezala, teoriako gutxiengo bati interesea dakiokkeen beste ekintza batzuk ere programatu nahi ditugu aurrerantzean, guregana hainbeste gerturatzen ez direnek, hain ikusgai ez diren afizioak dituztenek, gurean eta gizartean beraien lekua dutela jakin dezaten.

Bestalde, bidaia inguruko herrietako beste nerabe batzuekin batera egiteko antolatu dugu, horrela irteera hau lagunak egiteko aukera bat ere izan daitekeelakoan gaude, gutxiengoen zaletasun izanda eskertu egiten baitute gazte "berdin" gehiago ezagutzea.

Agian, eta dena ondo bidean, otsailaren 25 horretan, Barakaldotik bueltako autobusean izango da Oñatiko Japan Weekend-aren 1. go edizioako lehen bilera...

AGENDA

Gaztelekuko kontzertuak: **Otsailak 11**, zapatua, 22:00etan, Bladders, Arkada Sozial eta GBH. Arratsaldean talde sorpresak ere egongo dira. Sarrerak agortuta. **Otsailak 26**, igandea, 12:30etan, Anonyme Popular (Igor Elortza). Sarrera 8€. | **Gaztelekuko ekintzak:** Kuboa, **Otsailak 19:** Mini Master Chef. Topalekua, **Urtarrilak 29**, Pintxo lehiaketa. Gazteleku osoa, **otsailak 21:** Inauterietako ekintzak. | **Ludotekako ekintzak:** **Otsailak 3**, eskulanak. **Otsailak 10**, txapa tailerra. **Otsailak 17**, inauterietako ekintzak.





ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserriko agia,
egurrezko labea egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



Alde bakarreko begiradaz

Suizidioaren gaiari heltzen dion bertso sorta honekin Mungiako San Antontxu bertsoaper lehiaketako lehen saria eskuratu du Urko Egaña. Iñigo Legorburu eta Mikel Arrillagarentzat izan dira bigarren eta hirugarren sariak.

Doinua: Auséncia (Imanol kanta 11A/Bra egokituta)

Egilea: Urko Egaña



Saritutako hiru bertsolariak

1.- Soka batez zintzilikatuta nahiz eskumuturreko zainak moztuta edo gas hilkorren bat arnastuta hiltzea amesten zuen baten nahiz, batenbat mindu nezakeen usaiz aurretik barkamena eskatuta eta hitzak oso ondo neurtuta bertsoak jartzen saiatzen nintzen maiz. Baina gaur bai, suizidioaren gaiz, bi alde dauzkala aintzat hartuta, hots, neure aldetik begiratuta errespetuz ahaleginduko naiz.

2.- Kanpoko guztia barneratzean inoiz ez da izaten atsedetik ez baita korapilatzen ez denik buru barrukoa martxan jartzean. Korapiloa korapilatzean pilatzeak nahiz ez izan etenik, ez da arrazoirik ez gaituenik pozten korapiloa askatzean. Suizidatzean min denak atzean uzten diren ustean ziurrenik utziko du norbait mindu duenik utzi dizkion min denak hartzean.

3.- Norberaren buruan zer dagoen norberak ezin badu kontrolatu, ezingo du nahi bezala kontatu nahiz berak jakingo duen ondoen. Egoera horretan den askoren zailtasunak ezin dira sailkatu eta ezin dute asimilatu sarri ere gutxi nola asko den! Zer ez ote da zail errez baino le(he)n? Zail dena errez nahi da bilakatu, baina hori ezingo da gauzatu behin buruaz beste egin ondoren.

4.- Basamortuan ura aurkitzea ahal dela entzun diot askori baina ez nion entzungo inori erreza denik bila aritzea. Ez du merezi egarriz hiltzea ura badarrie hainbat zulori. Beti dago irtenbide bat! Edo bi! Ziur bat ez dela suizidatzea! Etsi-etsian bizitza kentzea nahi dutenak ez al dira erori irtenbidetzat jo nahi duten hori ez ote den bidetik irtetzea?

5.- Burumakur dabilenaren bitsa ari baldin bada lurrera jausten eta arimaz ari bada husten hau ez da bere zerrailaren giltza! Bele beltzak inguruan dabilta eta zail da argi pixkat ikusten baina saiatu argi horri eusten hori baita irauteko baldintza. Suizidioak ez ditu bizitza okertzeko aukerarik zapuzten, ostera ez dio hobetzen uzten betirako itzaliz argi printza.

6.- Ziur egunak igaro direla minez, nahigabez eta etsipenez negar malkotan itozteko senetz edo beste modu batez bestela. Maiz egunkarietako eskela propioa sortuz minen baimenez jakinda bildurrak duen kemenez mina areagotu dezakela. Eutsi goiari ahal den bezela be(he)tik irtetzeko itxaropenez buruaz beste egin baino le(he)n ez ahaztu beste bururik ez dela!

7.- Maitasun, osasun zein bestelako arazoak daude beti sustraitzat. Maiz sustraiok sekulako zuhaitzak bihurtzen dira konturatzerako! Eguraldi txarra atertzerako baretuta izango dira gaitzak eta itxaropena hartuz aintzat ez guke ezer faltan botako. Presta gaitzean datorrenerako nahiz gaitz asko dakarren maiz ekaitzak, helduko dira gustuko emaitzak non ez den irrifarrerik faltako.

8.- Bizipenek irakasten digute zenbait bide oker nola zuzendu, elkar entzuten jakingo bagendu maiz laguntzen lagunduko liguke. Zenbat aholku eta hitz errute gura izan ditudan nabarmendu, baina hemen minduak sufritzen du gure bigarren plano baten truke. Bere erru eta bere bertute bizitza da bizitzaren ukendu, gaur eman eta bihar igual kendu bizitza gauz hauek osatzen dute.

Sorioneku



oñabike.com

Otadi 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK

» **SASKIBALOA** | OIER INDA, OINTXE-ARRASATE TALDEKO JOKALARIA

Joko-antolatzaile, Euskadiko selekzioan

■ Oier Inda oñatiarrak, kadete mailako Espainiako txapelketan parte hartu du Euskadiko selekzioarekin

Urtarrilaren 3tik 7ra Huelvan (Andaluzia) jokatu den kadete mailako autonomien arteko Espainiako txapelketan parte hartu du Oier Indak (Oñati, 2008), Euskadiko elastikoa defendatuz.

Natxo Gomezek gidatzen duen Euskadiko selekzioa 9. sailkatu da. Aurreneko multzokako fasean erraz menperatu zituzten Melilla eta Ceutako selekzioak, baina Aragoikoaren aurka galdu egin zuten 3 punturengatik (74-71), eta horrenbestez lehenengotik zortzigarren postuetarako lehiatik kanpo geratu ziren.

Bigarren fasean Gaztela-Mantxa (73-60), Gaztela eta Leon (71-68) eta Galiziako (65-49) selekzioak hartu zituzten mendean eta, horrenbestez, bederatzigarren postuan amaitu zuen Euskadik, zapore gazi-gozoarekin, Oierrek azaldu digunez. "Aragoiren aurkako partidua gakoa zen, eta ez zitzaigun ondo atera. Ez dut uste gu baino gehiago zirenik, eta ikusita azkenean bosgarren sailkatu zirela, uste dut geu ere hortxe egon gintezkeela, selekzio indartsuenekin (Madril, Katalunia, Andaluzia...) lehian. Pozik gaude egindako lanarekin, baina arantzatxo hori geratu zaigu".

"Teknikoki oso jokalaria ona eta azkarra da Oier. Oso ondo ikusten du jokoa"

Natxo Gomez Euskadiko selekzioko hautatzailea

Iritzi berekoa da Natxo Gomez, selekzioko hautatzailea. "Sei partidutik bakarria galduta, pena da 9. tokiarekin konformatu behar izatea, baina halakoxea da lehiaketako sistema. Pozik nago, hala ere, Aragoiren aurka galdu ostean, burua altxatzen jakin genuelako". Oier Inda oso maila onean aritu dela azaldu digu. "Kontuan hartu behar da lehen urteko kadetea dela eta adin hauetan fisikoa asko nabaritzen dela. Baina teknikoki oso jokalaria ona eta azkarra da Oier; oso ondo ikusten du jokoa eta badaki zer egin behar den une bakoitzean, eta adin horrekin partiduaren erritmoa eramaten jakitea oso zaila da. Kanpoko jaurtiketetan hobetzeko margina du, baina, esan bezala, taldea gidatzen eta jokoa antolatzen oso trebea da".



Oier Inda Hernandez

» **Adina:**
14 urte

» **Taldea:**
Ointxe-Arrasate

» **Posizioa:**
Joko-antolatzailea

» **Garaiera:**
1,80 m.

Lehenengo urteko kadetea da oraindik Oier, eta selekzioko kide ia guztiak bigarren urtekoak dira, baina, hala ere, minutu asko jokatzeko aukera izan du, eta gustura dago emandako errendimenduarekin.

ARRASATEKO OINTXE TALDEAN

Aloña Mendin jokatzen hasi zen Oier, 8 urte zituela, baina berehala nabarmendu zen baloia eramateko eta jokoa antolatzeko duen erraztasunagatik, eta, hala, hurrengo urtean Ointxe-Arrasate taldera joan zen. Gipuzkoan dagoen saskibalo klubik indartsutenetakoa da Arrasatekoa, Easo eta Iraurgi-rekin batera.



9

sailkatu da
Euskadiko selekzioa

6

urte daramatza
Ointxe-Arrasate
taldean

puntu eskuratu dituzte, eta lehen lau sailkatuen artean sartzea da orain erronka. "Aurreneko laurek *play off*-a jokatzeko dute eta lehenengo biak Espainiako txapelketara sailkatzen dira. Oso zaila da, baina gauzak ondo egiten baditugu, posible da", uste du Oierrek.

Joko-antolatzailea da Oier eta, esan bezala, botea eta baloia eramateko duen maisutasuna dira bere dohain nagusiak. Jokua sortzea eta taldekideei aukerak sortzea gustatzen zaio, eta baita barneratzeak ere. Kanpoaldeko jaurtiketa hobetu eta defentsan zorrotzagoa izaten ikasi behar duela dio berak. Kontua da, ia gehienetan haundiagoen aurka jokatzeko duela, — Arrasaten junior mailako taldearekin jokatzeko hasi da —, eta fisikoa asko igartzen da kategoria horietan.

Beste helburu bat ere badu Oierrek aurtengorako. Berriki jakin dute 3x3 erako Espainiako autonomien arteko txapelketa jokatu dela aurten lehen aldiz, eta ilusio berezia egingo lioke Euskadiko taldean egoteak.

Ointxe-rekin Euskadiko Ligan jokatzeko ari da Oier, kadete mailan dagoen lehiaketa gorenean, Baskonia, Bilbao Basket eta Easo bezalako talde indartsuekin batera. Dagoeneko, kategoriari eusteko adina



Oier Inda (5)
Espainiako txapelketan parte hartu duen selekzioarekin

📷 Jorge Bozal

» MOTZEAN

Mendi irteera Izki parke naturalera



Markizeko kobak

MENDI IRTEERA Aloña Mendik otsailerako antolatu duen mendi ibilaldia Izki parke naturalean (Araba) izango da. Markinezen abiatuta, San Juan eta Beolarra ermitak eta eremitek erabilitako kobak igaro ostean, Belabia (971m) mendira igo eta Markinezen amaituko da (17km eta +700m). Ez du zailtasunik. Irteera **otsailaren 12an** izango da (goizeko 7etan, postetxean). Izena emateko azken eguna otsailak 9, Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com. Prezioa, 10€. Federatuta egon behar da.

Urrezko Aizkorako finalerdiak Oñatin

HERRI KIROLAK Herri kirol jaialdi ederraz gozatzeko aukera izango dugu Oñatin **otsailaren 12an**. Alde batetik, binakako Urrezko Aizkora txapelketako finalerdia jokatu da. Hiru bikote ariko dira sei modalitate ezberdinetan, finalerako txartel bila. Gainera, harri jasotzaile azkarren finalerdietako bat ere bertan jokatu da. Telleria eta Olaizola ariko dira nor baino nor, hiru harri txikirekin. Saioa borobiltzeko, emakume harrijasotzaileen erakustaldia egongo da. Eguraldia ona bada, Foruen plazan jokatu da, eguerdiko 12:00etan; euria bada, Zubikoa kiroldegian. Sarrera doan.

Masterclass saioak Zubikoa kiroldegian



FIT BIKE ETA LUZAKETAK-ERLAXAZIOA

Otsailaren 11n (9:30-11:00) Fit Bike-eko masterclass saio berezia egingo da Zubikoa kiroldegian, eta otsailaren 17an (17:00-18:30) luzaketak eta erlaxazioari buruzkoa. Plazak mugatuak dira eta, beraz, aurrez izena eman behar da (943716375).

Ainara Urbarri irabazle Valentzian

MENDI LASTERKETAK Urtarrilaren 21ean Valentziako Barcheta herrian jokatu zen Serradeles de Barxetako 21 km.-ko mendi lasterketa irabazi zuen 2:06:11ko denbora-rekin.



300dik gora heritarrek parte hartuko dute aurten Oñatiko Inauterian

Pandemia aurreko egiturara itzuliko dira, goiz eta arratsaldeko kalejirekin, **otsailaren 18an**. Inauteri Txikia ere egingo da **otsailaren 16an**

Inoiz baino jendetsuagoa, inoiz baino parte hartzaileagoa izango da aurten Oñatiko Inauteria. Dantzari, musikari eta konpartsako gainerako pertsonaiak kontuan hartuz, 300dik gora lagun aterako dira herriko kaleak kolorez eta umorez janztera. Iaz, pandemia zela eta, goizez soilik atera ziren, baina aurten goiz eta arratsaldez ibiliko dira eta kiroldegian bazkalduko dute guztiek elkarrekin.

Bestalde, pandemiak eragindako etenaren ostean, Inauteri Txikia itzuliko da berriz ere eta, hala, otsailaren 16an herriko hiru ikastetxeetako gaztetxoek ospatuko dute herriko inauteria.

'Pianoaz gozatzen!' jaialdia

MUSIKA Jose de Azpiazu musika eskolak antolatuta, *Pianoaz gozatzen!* jaialdia egingo da otsailaren 25ean, Santa Ana aretoan. Oñatiko musika eskolako piano-ikasleez gain, Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Sorluze, Elgeta eta Legazpikoez ere parte hartuko dute. Ehun bat neska-mutiko guztira. Goizeko 9:15etan hasi eta eguerdiko 14:00ak arte ariko dira.



Oinarrizko argazkilaritza ikastaroa

IKASTAROA Ilunpetan Argazki Taldeak oinarrizko argazkilaritza ikastaroa emango du Eltzian. Otsailaren 28an hasi eta martxoaren 23an amaituko da. Astearte eta ostegunetan izango dira saioak (19:00-20:00), Eltziako Botreatz gelan (2. solairuan). Martxoaren 11n praktikak egiteko irteea egingo da (9:30-12:30). Prezioa: 100€. Izen-ematea: 630 491 115 (Ilunpetan Argazki Taldea).

Lur bustian idatziak, Jaltzoren eskutik



ERAKUSKETA Buztina eta literatura uztartzen dituen erakusketa da 'Lur bustian idatziak', eta udal liburutegian egongo da ikusgai otsailaren 15etik 28ra. Iñaki Jauregiartzok eskuz egindako zeramika lanak ikusiko ditugu bertan. Buztin plakaren gainean idazle ezagunen aurpegiak esgrafiatu eta esmaltatzen ditu Jaltzok. Buztin lanen ondoan, idazle bakoitzaren liburuak eta poemak ere aurkituko ditu bisitariak.

Helduentzako ipuin kontaketa saioa

IPUIN KONTAKETAK *Intujai*

antzerki taldeak antolatzen duen **AHOZ AHO-Ahokotasunaren Nazioarteko Jaialdian** parte hartuko du aurten ere Oñatiko udal liburutegiak. Horri esker, **Alberto Garcíak** (Belgika) 'Ella y mi género' helduentzako ipuin kontaketa saioa eskainiko du **martxoaren 1ean**, kultur etxeko zine aretoan (19:00), gazteleraz. Emakumeek gure gizartean bizi duten egoeraz gogoeta eragiten duten istorioak kontatzen ditu Garcíak. Sarrera dohanik. Bestalde, **martxoaren 9an**, **Celine Ripoll**-ek (Polinesia) haurrentzako 'Polinesiako ipuinak' saioa eskainiko du haur liburutegian (18:00). Izen-ematea otsailaren 27tik aurrera.



Adimen gaitasun handiko haurrak

HITZALDIA Urgain eskolako gurasoen elkarteak antolatuta, 'Adimen gaitasun handiko haurrak ezagutzen' izenburua duen hitzaldia egongo da otsailaren 8an, kultur etxean (18:00). Gaitasun handietan aditua den Amaia Agiriano (psikologoa, irakaslea eta arkitektoa) izango da hizlaria, eta adimen gaitasun handiko haurren berezko ezaugarriez berba egingo du. Herritar guztiei irekia.



Konstelazio familiarrak

TAILERRA Eltzian egoitza duen Artez Hezten (Crece con Arte) taldeak antolatuta, Konstelazio familiarren inguruko saioa egingo da otsailaren 25ean (10:00-14:00), M^a Luisa de Dios García adituaren eskutik. Erreserbatu lekua 628 212 839 zenbakira deituta.



Denontzako eskola

Zeintzuk dira Elkar Hezi proiektuaren ezaugarriak azpimarragarrienak?



1. Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa



2. DOAKO-TASUNA: 2 urtekoak kutorik gabe (23-24 ikasturtea)



3. Ekitatearen alde eta segregazioaren aurka:

malasuna, barkamena, errespetua, behar handien dutenekiko lehenetasuna eta laguntza, itxaropena, poztasuna, askatasuna, konpromisoa, duintasuna, justizia, ausardia, elkartasuna...

4. Eraldaketa Pedagogikoa:

Euskal Ikas-komunitatearen sareko kide, Ebidentzia zientifikoan oinarritutako Hezkuntza Jarduera Arrakastatsuak.

Pertsona osoa: barnetasuna, mindfulness.

Lehen urteetatik ikas-aukeren eskaintza askotarikoa. Adimenaren askotariko dimentsioak, estimulazio goiztiarra.

5. Herritartasuna

Ikasle eleaniztunak, kulturartekotasuna, gure-geureak diren Euskal Kultura eta Euskara ardatz.

6. Kogobernantza eta partaidetza:

Ereiten Fundazioa. Ikasterxearen jabetza komunitarioa eta kudeaketa burujabetasuna, famillena eta langileena.

Bisita pertsonalizatuak



idazkaritza@elkarhezi.eus
943 71 82 72  688 621 195

Estimulazio Goiztiarra

jardunaldiak



martxoak 10 eta 11



HIZLARIA:
Nuria Sanchez Povedano
gaian aditua.

INFORMAZIO GUZTIA:
www.elkarhezi.eus



AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



TXAPELKETA

OTSAILAK 3 / 21:00

MUS TXAPELKETA

Izen-ematea 20:30-21:00 bitartean, 10€ bikoteko. Sariak: 1. (%50+2 botila), 2. (%30 + 2 botila) eta 3. (%20 + 2 botila).
[Antixena gaztetxean](#)

KONTZERTUAK

OTSAILAK 3 / 21:00

MUGA ZERO + MC ONAK

Muga Zero (Lakuntza) eta *McOnak* (Lekeitio) rebel folk taldeen kontzertua. Sarrera, 6€. [Ikatz tabernan](#)



OTSAILAK 4 / 22:00

KOSMAI KOSIN + HOFE X 4:40

Musika elektronikoa egiten duen *Kosmai Kosin* (Hondarribia) eta *Hofe x 4:40* trap-pop taldeen kontzertua. Sarrera: 8€/3€. [Antixena gaztetxean](#)

OTSAILAK 11 / 22:00

BLADDERS + ARKADA SOCIAL + GBH

Punk-rock taldeen kontzertua. Sarrerak agortuta. [Gaztelekuan](#)

OTSAILAK 24 / 21:30

NORKZER?! + TOOTH

Norkzer?! (Hernani) hardcore eta *Tooth* post-hardcore taldeen kontzertua. Sarrera: 5€/3€. [Antixena gaztetxean](#)

OTSAILAK 25 / 9:15-14:00

PIANOAZ GOZATZEN!

Musika eskola ezberdinetako ehun bat piano ikaslek parte hartuko dute. [Santa Ana aretoan](#)

OTSAILAK 26 / 12:30

ANONYME POPULAR

Anonyme Popular (Igor Elortza eta Rafa Rueda). Ikus-entzunezko bertso berriak, garaiari eta giroari jarriak. Sarrera, 8€. [Gaztelekuan](#)

MARTXOAK 3 / 22:00

PINPILINPUSSIES + RO

Post-punk, pop eta rock alternatiboaren bueltan mugitzen den *Pinpilinpussies*



Argk.: Santi Mendiola

MAITASUN DOINUAK musika bandaren eskutik

OTSAILAK 5
KIROLDEGIAN
13:00

MAITASUNALDIA du izenburua musika bandaren otsaileko kontzertuak, eta, hala, maitasuna hizpide duten doinu ezagunak joko dituzte, abesti klasikoak, pelikuletako soinu bandak eta Euskal Herriko nahiz kanpoko pop kantak tartekatuz. Hauxe egitaraua: **Concerto de amore** (Jacob de Haan), **Forrest Gump** (Alan Silvestri), **Chanson de amour** (Johan de Meij), **Lau Teilatu** (Juan Carlos Perez), **Fix you** (D. Jones), **Heal the world** (Michael Jackson) eta **West side story** (Leonard Bernstein). Sarrerak (dohainik) aldeztu aurretik eskuragarri Txokolateixan.

(Bartzelona) eta post-rocka egiten duen *Ro* (Azkoitia) taldeen kontzertua. Sarrera: 8€/3€. [Antixena gaztetxean](#)

MARTXOAK 5 / 12:30

DON INORREZ

Imanol Ubedak gidatzen duen pop-rock taldearen kontzertua. Sarrera: 5€/3€. [Antixena gaztetxean](#)

HITZALDI-TERTULIAK

OTSAILAK 8 / 18:00

'ADIMEN GAITASUN HANDIKO HAURRAK EZAGUTZEN'

Hizlaria: Amaia Agiriano, psikologoa, irakaslea eta arkitektoa. Urgain eskolako Guraso Elkarteak antolatuta. Herritar guztiei irekia. [Kultur etxean](#).

OTSAILAK 10 / 19:00

'NAFAR ESTATUA DEFENDATZEN, GIPUZKOATIK AMAIURRERA'

Hizlaria: Iñaki Sagredo, historialaria. Nabaraldeak antolatuta. [Kultur etxean](#)

OTSAILAK 15 / 10:00

'MINBIZIA. ZER DA ETA ZER EGIN DEZAKEGU TRATATZEKO?'

Hizlaria: Felix zubia, medikua. Oñatiko. Esperientzien Gelak antolatuta. [Santa Ana aretoan](#)

OTSAILAK 20 / 18:30

'OÑATI XIX. MENDEAN'

Hizlaria: Xabier Zelaia, Oñatiko udaleko aparejadore ohia. [Pake Lekun](#)

OTSAILAK 22 / 10:00

'ONTZIAK'

Hizlaria: Joseba Sarrionandia, idazlea. Oñatiko. Esperientzien Gelak antolatuta. [Santa Ana aretoan](#)

LIBURU AURKEZPENEA

OTSAILAK 3 / 18:30

'GORIBAR-KASABLANKA: XX. MENDEKO BIZITZA ARGAZKITAN'

Jexumai Ugartek idatzitako liburua ren aurkezpena. [Kultur etxean](#)

JAIK-IRTEERAK

BINGO BEREZIA+TXISTORRA JANA

Otsailak 16, Pake Lekun, 17:00

INAUTERIETAKO KANTU-BAZKARIA

Otsailak 18, Pake Lekun, 14:00

TOLOSAKO INAUTERIA+ SAGARDOTEGIA

Otsailak 21, Pake Lekun antolatuta

'OÑATI EZAGUTZEN': LATERANDARRAK

Otsailak 23, Agustindarren egoitzan, 11:00etan, Pake Lekun antolatuta

IPUIN KONTAKETA

Maidar Galarza



Ostegun kontalariak ekimenaren baitan, 4-5 urteko haurrentzako ipuin kontaketa saioa egongo da **otsailaren 23an** (18:00), haur liburutegian, Maidar Galarzaren eskutik. Izen-ematea, otsailaren 13tik aurrera (liburutegia@onati.eus / 943716111 / WhatsApp:688732826)

ANTZERKIA

Intxaurrak



Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen 'ARNASAGUNEAK' sorkuntza bekeri esker *Mairu* antzerki tailerrak sortutako **Intxaurra** antzezlanak ikusi ahal izango dugu **otsailaren 12an**, Santa Ana aretoan (19:00). Gaixorik dagoen intxaurrondoaren iruditik abiatuta, enborra biziberritzearen beharra islatzen du, euskararen arnasguneek duten garrantzia irudikatzen. Sarrera, 5€.



Hileko gomendioa

Eguzkia etzaten denean, gaueko zeruak unibertso mugagabea erakusten digu. Lurra, gure planeta, puntu guztiz ñimiño bat da kosmosaren neurri-gabetasun horretan. Non gaude? Nola hasi zen guztia? Zeintzuk dira planeta nanoak? Ezagutu itzazu! **Liburua**



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ **943 78 21 16**
Otsailak 1, 2, 10, 11, 12, 20 eta 21.
Martxoak 1 eta 2.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ **943 78 01 22**
Otsailak 3, 5, 13, 14, 22 eta 23.
Martxoak 3, 4 eta 5.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ **943 78 05 58**
Otsailak 6, 7, 15, 16, 24, 25 eta 26.
Martxoak 6 eta 7.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ **943 78 11 28**
Otsailak 8, 9, 17, 18, 19, 27 eta 28.
Martxoak 8 eta 9.

ZINEA



ORDUTEGIA

Zine-kluba: Osteguna (20:00)
Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (22:00) eta igandea (19:30 eta 22:00).
Astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Otsailak 2 - 6

ZINE KLUBA:

Cerdita

NAGUSIAK:

Living

GAZTETXOAK:

Inspector Sun
y la maldición de la viuda negra



Otsailak 9 - 13

ZINE KLUBA:

R.M.N

NAGUSIAK:

Lobo feroz

GAZTETXOAK:

Yuku eta Himalayako lorea



Otsailak 16 - 20

ZINE KLUBA:

Lunana: un yak en la escuela

NAGUSIAK:

La ballena

GAZTETXOAK:

El asombroso Mauricio



Otsailak 23 - 27

ZINE KLUBA:

Fire of love

NAGUSIAK:

El triángulo de la tristeza

GAZTETXOAK:

Asterix y Obelix y el reino medio



MERKATU TXIKIA

ETXEXO LANAK Oñatiko emakumea etxeko lanak egiteko gertu: 645703721

GARAJE itxia alokatzen da. 16m², argia, San Lorentzo auzoan, goiko aldean. Deitu: 652 705 766

ETXEBIZITZA salgai Oñatiko erdigunean (82m²). Bista ederrak eta oso argitsua. Deitu: 655 720 404

GARAJEA Garaje bat alokatzen da Ugarkaldeko 13-17an. 645719884

LOKALA Zerbitzu jarduerarako lokala (17m²) alokatzen Euskadi Etorbideko 7an. Deitu: 645 719 884

ODOL ATERALDIA

OTSAILAK 17 / 16:30-20:30
enpresagintza fakultatean. Hitzordua hartzeko, deitu: **943007884**



Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkitza
- ✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84

mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



(*) Itten: arrastua, pista

>> INGO XONAU (12)

C2 maillan, barriketarik ez!



Euskaltegiko ikasle taldea

Ainhoa: Zer moduz, mutillak, zela doiazue kursua?

Iñigo: Hemen gabiltzan ttirri-ttarra!

Unai: Ondo, baiña oraindiok hemen asko xagon ikusteko!

Xabier: Ezertarako asti barik, neska! Asti gehituago izan ezker, trankil samar eruango giñuken kursua, baiña gure martxan, nekez! Eta heu, zer moduz?

Ainhoa: Neu be bape asti barik ñabik: etxia, lana, masterra... Badakik, egunak hogeita lau ordu bakarrik xakok, eta danera ezkaittuk ailegaitten.

Xabier: Horixe don, ba! Zazpi milla gauza esku artian, eta danera ezin ailegau. Hau don gaitza hau! Baiña pregunta bat egin bihar dotsuet: badakozue asmorik esamiñera presentaitteko?

Iñigo: Hemen gagozen ezker, duda barik!

Unai: Izango etxonagu, ba! Zertan gabiltzan, bestela?

Ainhoa: Ba, ni nahikua berde ñagok eta uste xuat enaizela presentauko.

Xabier: Presentau hadi, neska, zer galdurik eztakon eta!

Ainhoa: Lehen be esan notsuen nere asmua eztala titulua etaratia, euskera zuztar-zuztarretik ikastia baiño. Orduan, etxuat gura, esamiña dala eta eztala, estuketan ibilletterik.

Xabier: Orduan, zer egin bihar don?

Ainhoa: Eguna ailegautakuan ikusiko xuat, baiña arte-artian trankil bizi gura xuat.

Xabier: Ondo xagon! Dana dala, danok be gogor egin biharko xonagu, aprobauko badogu.

Unai: Halaxe dok, mailla honetan etxagok barriketarik, bistan xagok!

Iñigo eta Xabier: Eziña, ekiñaz egiña!

Ainhoa: Ekin, ba, gogor!

Maisua: Ainhoa, ez pentsau bestiak baiño gutxiago zarienik, eta presentau zatez!


Ainhoa: Bai maillia emuten badot, bestela ez!



#NiTokikozale
#NiTokikozale
#NiTokikozale
#NiTokikozale
#NiTokikozale



Vilma
Hirukar



Jaione
Mapfre



Aran
Marku



1 "Edinburgoko Feliperi
(Isabel erreginaren senarra)
janari bat zerbitzatu nion"



2 "Ameriketara nindoala,
Amsterdameko aireportuan
nuen hegazkinera berandu
iritsi eta hegaldia galdu nuen"



3 "Ikara handia diet sugeei
eta narrastiei"

Jolastu, lotu eta dendariak ezagutu

Bete itzazu alboko
hutsuneak.
Erantzun zuzenak,
hilean zehar publikatuko
ditugu sare sozialetan.

1 2 3



**Maitasunaren hilabete honetan,
maitemindu zaitez zure
etxebizitzaz.**



amuebladoramondragonesa.com

C/ Zigarrola 1, Arrasate (Gipuzkoa)

